

9. ZERGA ORDENANTZA

UDALAREN HERRI JABARIKO ONDASUNEN BERARIAZKO ERABILERA EDO USTIAPEN ETA BALIATZE BEREZIAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA.

AURKIBIDEA:

	Orriak
I. Xedapen Orokorrak 1 eta 2 artikulua	3
II. Egitate Ezargarria 3 artikulua	3 – 5
III. Subjektu Pasiboak 4 eta 5 artikulua	5 – 6
IV. Salbuespenak, Kenketak eta Hobariak 6 artikulua	6
V. Zerga Oinarria 7 artikulua	6
VI. Zerga Kuota 8 artikulua	6
VII. Sortzapena eta Zergaldia 9 artikulua	7
VIII. Kitapena eta Ordainketa 10 artikulua	7
IX. Tasen Kudeaketa 11tik 21era artikulua	7 – 9
X. Azken Xedapena	9
9. ZERGA ORDENANTZAREN ERANSKINA	
I. Erabilera publikoko lurretan jarritako saltoki, barraka, salmenta-etxola, ikuskizun edo jolas-instalazioak	10 – 11
II. Bide publikoetako kioskoak	11
III. Bide publikoan mahaiak, aulkiak, beilatokiak, e.a.	12
IV. Espaloi gainetik ibilgailuen sarrera finen barru aldera eta bide publikoan ibilgailuentzako aparkalekua gordetzea	12 – 14



	Orriak
V. Bide publikoan edo komuneko lurretan zanga, erreten, zulo, aztergune antzekoak zabaldu eta, oro har, bide publikoetako espaloi edo zoladura altxatu eta okupatzea eskonbro, hesi, zurkaitz, asnila eta aldamiok	14 – 16
VI. Bide publikoan zorua, lurpea eta hegala okupatzea	16 – 19
VII. Bide publikoetara irten edo fatxada lerroa gainditzen duten mailadi, olana, balkoi, begiratoki eta antzeko instalazioak	19 – 21
VIII. Herri erabilerako basoetan, ustiapen komuneko baso edo lurretan (herri basoetan edo herri lurretan) edo udalaren bere jabetzapekoetan larre, barruti eta bazkalekuen aprobetxamendua	21 – 22
IX. Azoka plazako saltokien erabilpena	22
X. Udal jabariko herri-bideen erabilera berezia	22
XI. Merkataritzako gaien edo bidaiarien garraioko ibilgailuen aparkalekua erabiltzea, Arantzar Udal aparkalekuan	23
XII. Auto-taxiaren garraio zerbitzua	23 – 24
XIII. Azken Xedapena	24

9. ZERGA ORDENANTZA

Azken aldaketa Udalbatzak 2011-11-02ko osoko bikura erabakiz

Hasierako onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2011-11-09ko 131 zk.an

Azken aldaketa, behin betiko onartura: 2011-12-17

Behin betiko onarpenaren argitalpena ALHAOn: 2011-12-26ko 151 zk.an

Indarrean sartu: 2012-01-01

9. ZERGA ORDENANTZA

UDALAREN HERRI JABARIKO ONDASUNEN BERARIAZKO ERABILERA EDO USTIAPEN ETA BALIATZE BEREZIAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.

Laudio Herriko Etxeak honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat, erabaki eta ebatzi du Tasak exijitzea Udal jabetza publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu eta ustiapen berezia egiteagatik, Ordenantza honetan eta parte osagarri duen zerga-kuoten bere Eranskinean espezifikatutako terminoetan.

2. Artikulua.

Ordenantza hau Laudioko udalerrri osoan aplikatuko da.

II. EGITATE EZARGARRIA

3. Artikulua.

Zegaren oinarria, gaia, kontzeptua eta kontzeptua izango da udalaren edo herriaren herri jabariko edozein ondasunen berariazko erabilpen pribatua edo ustiapen berezia egitea, eta batez ere honako hauek:

- a) Herriaren herri jabari lurretan area eta eraikuntzarako beste materiale batzuk ateratzea.
- b) Herriaren erabilpen publikoko lurretan elurtegiak edo euri urak batzeko ur-putzu edo patinak eraikitzea.
- c) Bainuetxeak eta herritarrentzako erabilera arrunta eta ohikoaz besteko urez baliatu eta gozatzekoak.

- d) Herriko erabilera publikoko lurretan isurtzea eta kanalonetako urak eta antzerako instalazioetakoak botatzea.
- e) Herriaren erabilerako lurretako lurrazpiaren okupazioa.
- f) Herritarren erabilerako lurretan erreten, lubaki eta zuloak zabaltzea, herriko errepide, auzobide eta gainerako bide publikoak barne hartuta daudela, kainu, tutueri, eramanbide eta bestelako instalazioak jarri edo konpontzeko, hala nola bide publikoko zoladura zein espaloiko edozein ukitze eta aldaketa.
- g) Herriko erabilera publikoko lurren okupazioa salgai, eraikuntzako materiale, eskonbro, hesi, eustaga, eustegur, aldamio eta beste antzeko instalazio batzuekin.
- h) Espaloi gainetik ibilgailuen pasaera eta bide publikoaren erreserba aparkamendu eskusiborako, ibilgailuen geldialdirako, edozein motatako salgaien zamaketa eta hustuketarako.
- i) Herriko edozein motako bide publikoko zorua edo lurrazpia okupatzen dituzten etxebizitzak, argi-leihoak, arnasbide zuloak, sarrerako ateak, zamatzeko ahokadurak edo antzeko elementuak, argia emateko, aire berritzea, pertsonen edo artikuluen sarrera soto edo erdi-sotoetara.
- j) Herriko edozein motako bide publikoko hegalek okupatzea elementu eraiki itxiekin, hala nola terraza, begiraleku, balkoi, markesina, olana, haize-babesgailu eta antzeko beste instalazio batzuekin, bide publikoaren gainetik hegalean edo fatxadako lineatik irteten direnekin.
- k) Haritzak, tutueriak eta galeriak argi-indarra, ura, gasa edo beste edozein fluido edo jariakinena, horien barruan sartuta haritzak, kableak, tximeletak, lotura kaxak banaketa edo erregistro kaxak, transformadoreak, eskegitegiak, pisagailuak, salmenta automatikorako aparailuak eta antzerakoak bide publikoetan ipintzen direnean edo herriaren herri jabariko beste lur batzuetan edo horien gainetik hegan daudenean.
- l) Herriko erabilera publikoko lurren okupazio mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzerako beste elementu batzuekin, dirua irabazteko asmoaz.
- m) Bide publikoan kioskoen instalazioa.
- n) Herriaren erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmentarako etxolak, ikuskizunak, atrakzioak edo jolas-asiadirakoak instalatzea, zein kalez kaleko industria eta ibiltariak eta zinematografia grabaziokoak.
- ñ) Aturre, eskaparate eta beira-erakustokiak.

- o) Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergaren menpean ez dauden ibilgailuak errodatu eta eramatea.
- p) Bide publiko edo herriaren jabetzapeko lurretatik ganaduaren trantsitua.
- q) Lurrari eusteko edo sendotzeko hormak, eraikuntzak edo hesiak, behin betikoak edo behin behinekoak, herriko bide publikoetan egiten direnean.
- r) Erregai deposituak eta banaketa aparailuak eta, oro har, herriaren erabilera publikoko lurretan, edozein artikuluko edo salgai banatzekoak.
- s) Herriaren jabetzapeko lurra okupatzen dituzten iragarkien instalazioa edo errepide, auzobide eta beste edozein herriko bide publikotik ikusgarri dagoena.
- t) Errepide, bide eta beste herriko bide publiko batzuetan laburbideak eta erretenen gainetiko eta ezpondetan edozein motako ibilgailu zein ganaduarentzako pasabideak eraikitzea.
- u) Trakzio mekanikodun ibilgailuak aparkatuta uztea horretarako zehaztuta dauden Laudioko kaleetako zonen barruan eta erabaki ahal diren mugen barruan.

III. SUBJEKTU PASIBOAK

4. Artikulua.

1. Tasaren subjektu pasiboak dira, zergapeko edo zergadun kontzeptuan, Arabako Lurralde Historikoaren Zerga arloko Foru Arau Nagusiko 35. artikuluko 3. idatzi-zatian aipatzen dituen pertsona fisikoak, juridikoak eta erakundeak herriaren edo udalaren jabetza publikoaz gozatu, erabili edo espezialki aprobetxamendua dutenak euren irabazi partikularrerako, Ordenantza honetako 3. artikuluan aurreikusitako kasuen arteko baten batekin bat.

2.- Zergadunaren ordezkoren izaera izango dute ibilgailu eta gurdizkoak espaloietatik zehar sartu ahal izateko berariazko ustiapena edo erabilera pribatiboagatik eta horiek eraiki, bere onean eutsi, eraldatu edo ezabatzeagatik, ibilgailuen sarrera horiei bide ematen dien lokale, garaje eta orubeetako jabeek, eskatu ahal izango dietelarik, kasuan kasuko, tasen kuotak dagozkien onuradunei.

Estatuak, Autonomia Erkidegoek eta Toki Erakundeek ez dituzte ordaindu behar izango zuzenean ustiatzen dituzten komunikazioetako zerbitzu publikoetakoak berezkoak diren ustiapenengatik herriaren jabetzapeko lurren erabilera pribatu edo ustiapen bereziagatik tasak, ez eta herritarren segurtasuna eta estatuaren defentsari hurbiletik interesatzen zaizkionengatik ere.

5. Artikulua.

Dagokion lizentzia jasotzen duenak ordaindu beharko ditu tasak edo, bere ordeztan, ustiapenez profitatzen denak.

IV. SALBUESPENAK, KENKETAK ETA HOBARIAK

6. Artikulua.

Salbuespenak eta beste zerga hobari batzuk eman ahal izateko Udal Ogasunari ezargarriak zaizkion izaera orokorreko xedapenen arabera eta Ordenantza honetako Eranskineko epigrafe ezberdinetan oinarria hartuta egingo da.

V. ZERGA OINARRIA

7. Artikulua.

Jabetza publikoaren erabilera pribatiboa eta ustiapen berezia materializatzen den unitate bakoitza izango da zerga honen oinarria, Eranskineko terminoen arabera.

VI. ZERGA KUOTA

8. Artikulua.

1.- Zerga kuota tarifa bat ezartzetik ateratzen kopurua izango da, horretarako jarritako kopuru finkoa edo bi prozedurak ezartzearen ondorioz sortutako kopurua.

2.- Erabilpen partikularrak edo aprobetxamendu bereziak herri jabariaren suntsiketa edo hondaketa badakar, onuradunak ordaindu behar duen tasaren kalterik gabe, dagozkion berreraikitze edo konpontze gastuen kostu osoa ordaintzera eta zenbatekoa aurretiaz gordailuan uztera behartuta egongo da.

Kalteak konponezinak balira, Herri Erakundeari hondatutako ondasunen balioaren besteko kalte-ordaina edo suntsitutakoen zenbatekoa emango zaio.

Udalak ezin izango du barkatu, ez osorik ez zati bat, atal honetan azaltzen den kalte-ordain edo diru itzulketarik.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. Artikulua.

Udalaren edo herriaren jabetzapeko Toki herri jabariaren erabilpen partikularra edo aprobetxamendu bereziagatik tasa erabilpen pribatua edo aprobetxamendu berezia hasten denean sortuko da, zerga oinarriaren arabera, aurretiaz bere zenbateko osoa edo zati bat uztea eskatu daitekeelarik, edo jarduketa edo espedientea hasten duen eskaera aurkezten denean, hori ez delarik egingo ez tramitatuko dagokion ordainketa burutu arte.

Tasaren berezko izaerak honen aldikako sortzapena eskatzen duenean, eta horrela finkatuta geratu da Ordenantza honetako eranskineko dagokion epigrafean, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean egingo da eta zergaldia egutegiko urte osoa izango da, erabilpen partikularra edo aprobetxamendu berezian hasiera edo uzte-bukatze suposamenduetan izan ezik, orduan, zergaldia egoera horri doituko zaiolarik, kuotan dagokion hainbanaketa eginez, eranskinean azaldutako eran.

Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik herri jabariaren erabilpen edo aprobetxamendu eskubidea ez balitz burutuko eta gauzatuko, edo ez balitz aurrera eramango, dagokion zenbatekoa bueltatu eta itzuli egingo da.

VIII. KITAPENA ETA ORDAINKETA

10. Artikulua.

Laudioko Udal Administrazioak kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa eta kitapena egingo du, kitapenaren zenbatekoa esku-dirutan ordaindu eta udalaren kontuan sartuko delarik, dagozkion tarifetan jasotako ordainarazpen bakoitzeko arau partikularren arabera.

Hori guzti hori, tasen kobrantza auto-likidazio erregimenean beharretsi ahal izatean kalte barik.

IX. TASEN KUDEAKETA

11. Artikulua.

Ordenantza honetan araututako Tasaren likidazioa, zerga bilketa eta ikuskapenari buruz zerikusia duen guztian, zein zerga-urratzeak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkion zerga-zehapenak eta zerga-zigorrak zehazteari buruz, Arabako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean eta Udal honetako Zerga Ordenantza Orokorrean aurreikusitakoa aplikatu eta ezarriko da.

12. Artikulua.

1. Aurreko artikulua eta puntuetan aipatu diren efektu eta elementuen instalaziorako, zein aldaketa, eraberritze, handitze, edo hasieran emandakoen gutxitze lanetarako Udalaren Lizentzia behar da. Lizentzia hori emanda dagoela ulertuko da, dena dela, Ordenantza araututako tasak ordainduta badaude. Ordaintzen ez den bitartean ezin izango da hasi erabilpena edo ustiapena.

2. Tasa ez bada ordaintzen era automatikoa erakarriko du lizentzia atzera bota eta ez ematea.

13. Artikulua.

Ordenantza honetan araututako tasak, mota guztietako lizentzia, baimen eta autorizazioak emateagatik Tasak arautzen dituen Ordenantzarekin batera ordaindu beharreko gainerakoak eta aparteak dira.

14. Artikulua.

Aldez aurretiko lizentzia barik erabilpena edo ustiapena egiteagatik zerga-zehapenen erregimena erabaki ahal izango du Laudioko Udalak. Edozein modutan ere, kasuan kasuko egokitu ahal diren zerga-zehapen eta erantzukizunen kalte barik, erabilera edo ustiapen horien baimenduta egon balira legez tasa honengatik egokitutako zenbatekoak ordaindu egin beharko dira.

15. Artikulua.

Baimenean ez badator zehaztuta ustiapenaren edo profitamenduaren noiz artekoa eta iraupena, beren beregi luzatua eta geroratu legez ulertu behar da, harik eta baja aitortzen aurkeztu arte.

16. Artikulua.

Efektu edo elementuak herriarenetik erretiratu eta kendu ondoren, interesatuak behartuta daude Laudioko Udaletxean aurkezten egin duten erabilera edo ustiapen horretan baja emateko eskaera. Udala bat badator eskaerarekin, eskaera aurkeztu zen egunaren hurrengo hilabetetik hasita izango ditu ondorioak eta ordura arte sortutako tasak aplikatuko dira.

17. Artikulua.

Erabilera edo ustiapenaren titularitatean aldaketaren bat gertatzen bada, kontzesio hartzaile eta baimendunak jakinarazi beharko dio Laudioko Udalari, titular berriaren datu pertsonalak eta helbidea zein den adieraziz eta Ordenantza honen ondorioetarako beharrezko den datu oro. Jakinarazpen hori ez bazaio Laudioko Udalari ematen emandako lizentzia kenduta, ezabatuta eta atzera botata geratuko da, lizentzia berria eskatu beharko zaiolarik Laudioko Udalari.

18. Artikulua.

Ordenantza honetan araututako tasak ordaindu behar izateko obligazioa eta ordainarazpena sortuko da erabilera edo ustiapena egiteko baimena ematen denetik hasita, ustiapen berrien kasuan, eta gainerako kasuetan, ostera, dagozkion tarifetan adierazita dauden aldi bakoitzeko lehen egunean.

Udal Lizentziarik ez dagoen kasuetan, egokitu ahal diren zerga-zehapenen kalte barik, ordaindu beharra sortu da erabilera edo ustiapena hasi zen une beretik hasita zenbatuz.

19. Artikulua.

Tasaren ordainketa eranskinetako Tarifetan azalduta dauden epe eta aldietan egin beharko da.

20. Artikulua.

Lizentzia hartzaileari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik herri jabariaren erabilpen edo aprobetxamendu eskubidea ez balitz burutuko eta gauzatuko, edo ez balitz aurrera eramango, dagozkion zenbatekoa bueltatu eta itzuli egingo da.

21. Artikulua.

Interesatuak ez badu lizentzia erabili nahi berari egotzi ezin zaizkion oinarritutako eta arazoitutako zioengatik, Laudioko Udalak ordaindutako tasa bueltatu ahal izango dio, beti eta emandako aprobetxamendu baimenak ez baditu eragotzi edo oztopatu beste aprobetxamendu batzuk egitea.

X. AZKEN XEDAPENA

Udalaren Herri Jabariko Ondasunen Berariazko Erabilera edo Ustiapen eta Baliatze Bereziagatiko Tasak arautzen dituen honako Ordenantza Fiskala eta jarraian doan Eranskina, orain duen erredakzioaz, behin-behineko izaeraz onartu zen 2011ko azaroaren 2an, eta behin betiko izaeraz, urte bereko abenduaren 17an. Indarrean jarriko da 2012ko urtarrilaren 1ean eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetzea onartuko den arte.

ALKATEAK

IDAZKARIAK

Jon Iñaki Urkixo Orueta

M^a Aranzazu Lili Salazar

ERANSKINA

HERRI JABARIAREN ERABILERA PRIVATU EDO USTIAPEN BEREZIAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

I. ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN JARRITAKO SALTOKI, BARRAKA, SALMENTA-ETXOLA, IKUSKIZUN EDO JOLAS- INSTALAZIOAK.

APLIKAZIO ARAUAK.-

1. Ordaintzeko beharra ustiaketa berezitarako udal lizentzia edo baimena ematearekin sortzen da, edo hasten den une beterik, beharrezko baimenarik gabe egingo balitz, dagozkien instalazioak jendearentzat zabalik edo hertsirik dauden kontutan hartu gabe.

2. Ordainketa lursailak okupatzeko baimena ematen zaien pertsonak edo entitateek egin behar dute, edo kasuan kasuko, egitan eta benetan aprobetxamendua burutzen dutenek.

3. Udala eta herriari iruzur eta maula egitea legezko arau-haustea izango da baimenik gabe postu eta ustiapenak ipintzea, edo baimendutako baino lurrazal gehiago hartzea; guzti hori gaineko lurrazalari eta baimen gabe okupatutako azalerari dagozkien taseen halako bikoitzaz zigortuko da.

1. Epigrafea. Ondoren adierazten diren gauzen salmenta edo erakusketarako saltoki bakoitzeko ordaindu beharko da eguneko 2,40 €/metro lineala. Konfitura, fruitu lehor, izozki, barkilu edo antzerakoak; liburu, aldizkari eta antzekoak; landare, lore eta hazidun frutak, ortuariak eta beste elikagai natural edo elaboratuak; hegaztiak, arrautzak eta ehiza, hala nola, saltoki bakoitzeko salmenta edo erakusketarako mertzeria gaiak, oihalak, janzteko arropak, bisuteriakoak, kinkila, erreminta, koadroak, merke-gaiak, jostailuak eta beste anitz objektu.

2. Epigrafea. Laudioko Zaindari den San Roke jaiak direla-eta ipinitako saltoki, barraka, etxola, ikuskizun eta jolas-instalazioengatik lizitazio eta enkante deialdian finkatutako tasa ordaindu beharko da. Laudioko Agintedun Organoak urtero onartuko duen baldintzen pleguarekin batera egingo da lizitazio hori.

3. Epigrafea. Udalerriko jai ofizialetako egunak ez diren denbora eta aldietan baimendu ahal diren barraka, etxola, ikuskizun eta atrakzioak instalatzeko herri-lurrazal uztea eta lagatzea enkante

prozedura bidez gauzatu ahal izango da, beheranzko eskaintzak eginda edo zuzenean. Kasu horretan okupatutako egun bakoitzeko eta m² azaleraren arabera ordainduko da.

Epigrafe honetan aurreikusitako jabetza publikoa erabiltzeagatik, ordaindu beharko da 0,41 € m² eta eguneko, eguneko gutxienezko kuota 21,38 € izanik, zenbateko bien arteko handienak gairaille eta lega egingo duelarik.

II. BIDE PUBLIKOETAKO KIOSKOAK

APLIKAZIO ARAUAK.-

Lehena.- Tasaren objektua kiosko eta antzeko instalazioak bide publikoan ipintzea izango da.

Bigarrena.- Ordaindu beharra sortuko da instalazioen bitartez bide publikoaren ustiapen bereziarekin batera.

Hirugarrena.- Adierazitako instalazio horiekin bide publikoa okupatzeko baimena lortu duten titularrak diren pertsona natural edo juridikoek izango dute ordaindu beharra. Erantzukizun solidarioa izango dute, titularrak ez izanik ere, instalazioan gauzatzen den jardueraren karguan eta zuzendaritzan ari diren pertsonak.

Laugarrena.- Egunean eguneko kuotak okupazio baimena ematearekin batera aldi berean kobratuko dira eta, dena dela, saltokia ipini aurretik. Okupazioaren probetxu edo ustiapen denbora edozein delarik ere, hileko eta urteko kuotak ezin izango dira zati ez eta hainbanatu ere. Hileko tasen kasuan hilabete bakoitzeko lehen bost egunen barruan eta urteko tasen kasuan urte bakoitzeko lehenengo hiru hilabeteen barruan ordaindu beharko dira.

Bosgarrena.- Aldi baterako eta behin behineko saltokiak ipintzen badira aldeztu aurretik tasa ordaindu barik zerga arloko arau-haustea gertatuko da, zehatu eta zigortu egingo delarik 120,00 € isunaz, eta, gainera, isuna jartzeak ez du eragotziko edo ez da inolako oztoporik izango kasuan kasuko dagokion kuota kobratzeko.

TARIFA.-

1. Herriko kaleetan edozein merkataritza xede duen kiosko bakoitzak, hilabeteko, 22,34 €.

2. Salmenta mahai, gurdi, tabernatako barrak eta kideko instalazioak, freskagarriak, ardoa, garagardoak, askariak eta antzeko bakoitzeko, eguneko, 15,18 €.

III. BIDE PUBLIKOAN MAHAIK, AULKIAK, BEILATOKIAK, E.A.

Beilatokiak edo mahaiak kalean: Tarifa hilabete natural bakoitzeko ordaindu beharko da. Frakzioa ere hilabete oso legez hartuko da. Bide publikoko lurzoruaren okupazio m² eta hileko 2,68 €.

APLIKAZIO ARAUAK.-

Lehena.-Ordaindu behar honen objektua bide publikoa edo erabilera publikoko ondasunak seinatu diren mahai, aulki, beilatoki edo antzekoen bitartez okupatzean datza.

Bigarrena.- Ordaindu beharra sortuko da okupazioa bidezko egingo duen udalak lizentzia emateko orduan, edo okupazioa lizentzia barik egingo balitz, okupazio benetan eta egitan hasi denetik.

Hirugarrena.- Lizentziak emateko baldintzak betetzen badira, lizentzia horiek emango dira eskatzen diren urterako, interesatuek hurrengo urteetarako, behar den aldez aurretiko denboraz, eskaera berria aurkeztu beharko diote udal administrazioari.

Laugarrena.- Ordaindu beharra daukate udal lizentziaren titularrak eta lizentziarik ez dutenak bide publikoa okupatzen dutenak tasa honetako objektu diren edozein elementurekin. Ordaintzera behartuta daude solidarioki okupazio establezimenduen jabe edo titularrak.

Bosgarrena.- Ordaindu beharra sortzen den unean ulertuko da tasa sortuta dagoela eta ordaindu behar diren kuotetan ezin da kenketarik ez hainbanaketarik egin ustiapenaren iraupena edozein izanik ere eta zergadunari aurkeztuko zaion erreziboaren bitartez ordainduko dira, ordaindu beharra sortu ondoren hurrengo hamabost egunen barruan.

Seigarrena.- Tasa ordaindu behar izatetik salbuetsita egongo dira Agintari eta Erakunde Publikoen erabilerarako instalazioak harreretan, ekitaldi publikoetan eta gizarte-ongintza eta onbeharreko zereginetara xederatutakoak.

IV. ESPALOI GAINETIK IBILGAILUEN SARRERA FINKEN BARRU ALDERA ETA BIDE PUBLIKOAN IBILGAILUENTZAKO APARKALEKUA GORDETZEA.

1. Bi gurgil edo gehiagotako igilbailu berribilen gordetegia eta zaindegia, zerbitzu horretaz gainera, garbitu eta koipea emateko zerbitzuak prestatu zein prestatu ez, urteko eta pasabide eskubide eta erreserba bakoitzeko, ibilgailuen duten kapazitatea oinarria hartuta, hurrengo eskalaren arabera:

	Euro
- 10 ibilgailu arte	39,73
- 10-25 ibilgailu artean	86,28
- 25-50 ibilgailu artean	184,04
-50-100 ibilgailu artean	373,09
- 100 ibilgailutik gora	497,36

2. Jabe bakar bat edo batzuenak diren gordetegi kolektiboak 5 ibilgailu baino gehiagodun ugazabek denek batera edo bakoitzak berak bakarrik erabilia, aurreko epigrafean oinarria hartua ordaindu beharko dute zerga.

3. Pasabide bakoitza finka edo orube barrura, 5 auto arteko sarrera edo irteerarako. 39,73 euro/urteko.

4. Moto, auto-konponketa, eraikuntza tailerrek pasabide bakoitzeko ordainduko dute: 86,28 euro/urteko.

5. Garajeak izan barik, ez eta tailerrak, ibilgailuen erakusketa eta salmentan diharduten establezimenduak: 39,73 euro/urteko.

6. Eraikiko den eraikuntzarako, edo eraikuntza batean egingo diren obralan edo beste arrazoiengatik pasabide bakoitzeko emandako baimen bereziek ordaindu beharko dute hilabeteko edo hilabete zatikiko pasabide bakoitzeko: 184,04 €.

7. Tarifaturako pasabidek udal lizentziarekin batera doan ibi baimenaren kontzesioa lortu dutenean, ordaindu beharreko kuota honakoa izango da: urteko/gordetako/metro linealeko 63,44 €.

8. Bide publikoan aparkalekuak erreserbatzea edo gordetzea, partikularrek eta norbanakoek euren jarduerak egiteko, ondorengo tasa hauek sorraraziko ditu:

	Euro	
- 3 aparkaleku plaza bitarte	9,94	Astean
- 5 aparkaleku plaza bitarte	19,87	Astean
- 5 aparkaleku plaza bitarte baino gehiago	4 euro/plaza	Astean

APLIKAZIO ARAUAK.-

a) Tasa honen objektu dira galtzadatik eraikuntza eta orube barru aldeetara ibilgailuen sarreraren ondorioz sortutako bide publikoaren ustiapen bereziak eta aparkalekua gordetzeagatik, edo geraleku eta zamalanetarako abantaila berezien ondorioz sortutakoak.

b) Ordaintzeko beharra ustiapen berezia egiteko udal lizentzia edo baimena ematearekin batera sortzen da, edo ustiapena hasten den une beterik, beharrezko baimenik gabe egingo balitz.

c) Lizentzia edo baimena jaso, edo baimenik ez izanik ere, bide publikoaren erabilpen eta ustiapen berezia egiten duten pertsonen tasa honen ordaindu beharra izango dute.

d) Areto, lokal batek pasabide bi edo gehiago dituzenean, lehenengoak ordainduko du lehen epigrafeari dagokion tarifa eta beste pasabideek dagokien tasaren %50 kenketa izango dute.

e) Pasabideen instalazio, kontserbazio, erreforma, kentzea eta aparkalekuen gordetze gastuak, baita bere seinalizazioarenak ere, eskatzaileen kontu eta kargura izango dira.

V. BIDE PUBLIKOAN EDO KOMUNEKO LURRETAN ZANGA, ERRETEN, ZULO, AZTERGUNE ANTZEKOAK ZABALDU ETA, ORO HAR, BIDE PUBLIKOETAKO ESPALOI EDO ZOLADURA ALTXATU ETA OKUPATZEA ESKONBRO, HESI, ZURKAITZ, ASNILA ETA ALDAMIOZ.

1. Erreten eta azterguneak zabaltzen direnean gasa, ura edo argi-indarreko hartune berrietarako, haritza edo tutuak bota eta eramateko, eman eta kendu giltzak ipintzeko, erregistro kutxatila, matxuren konponketa beharrak egiteko, eroanbideak, e.a. 10,73 € izango da metro lineal bakoitzeko.

2. Lurpeko ganberak deposituak eta transformadoreak, zerbitzuak, sarrera putzuak edo aireztapenekoak eta beste antzerako batzuen instalazioan, m³ edo harrerako zatiki bakoitzeko, asteka hainbatu ahal izanik: 7,02 €.

3. Hesiak, aldamioak, igotzeko plataformak eta montakargak, edozein obra edo instalazio motaren aurrean jarritakoak ordainduko du 4,75 € m² edo frakzioko hileko, asteka hainbanagarria izanik.

4. Lana egiten ari den lekuan bertan edo enplazamenduan laneko materiale eta hondakinak bildu, jaso eta garraiatzeko kontenedoreak edo elementu laguntzaile edo osagarrikoen bide publikoaren okupazioagatik: 4,75 €.

APLIKAZIO ETA EZARPEN ARAUAK.-

Lehena.- Ordenantza honetan arautzen den zergaren objektua da bide publikoaren eta herriaren erabilera publikorako diren udalaren jabariko lur eta jabetzapeko terrenoetan ustiapen berezia egitea zangak zuloak, mea-aztergune antzekoak zabaltzeagatik, espaloia, zoladura eta antzerakoak altxatzeagatik, behar eta lan horietatik eratorritako materialez bide publikoa okupatzeagatik eta hesi, aldamio, eta beste eraikuntza arloko elementuekin hartu-emanetan dauden instalazioen bitartez egindako okupazioaren ondorioz sortutako ustiapen bereziengatik.

Bigarrena.- Ordaindu beharra sortuko da interesatuek Udal Administrazioetik lortu behar duten tasaren objektu diren obrak eta ustiapena egin ahal izateko derrigorreko eta alde zuzeneko lizentzia ematearekin batera, edo, bestela, obra edo ustiapen horiek benetan egin direnean, dagokion baimen barik egin izan badira.

Hirugarrena.- Ordaindu beharra dute udal lizentziaren titularrek, hala nola bide publikoaren okupazioaz benetan aprobetxamendua egiten duten edo onura hartzen duten pertsonak edo erakundeak. Tasaren ordaintzea bateragarria da bide publikoaren lurrazpikoaren okupazioaren ondoriozko aprobetxamendu bereziagatik. Tasaren Ordenantza arautzailearen aplikazioaren ondoriozko kuotekin.

Laugarrena.- Erreten, zanja eta lurpeko ganberak zabaltzeagatik. Tasak behin bakarrik likidatuko dira aprobetxamendu bakoitzeko; gainerako aprobetxamendu eta ustiapenen ondoriozkoek hileroko sortzaketak dute eta ezin izango dira murriztu ez eta gutxitu, hileroko errezibo bitartez kobratuko direlarik.

Bosgarrena.- Tasa honen objektu diren obra edo ustiapenen bat egiteko gogoia duen pertsonak edo erakundeak Udal Administrazioari dagokion lizentzia eskatu beharko dio alde zuzeneko; lizentzia-eskaeran jasota geratu behar da obra edo ustiapenaren izaera eta zer-nolakoa, zenbat denbora iraungo duen eta gainerako beste beharrezko azalpen guztiak lizentzia eman ala ez aztertzeke zein ordaindu beharrezkoaren zenbateko zehaztu eta aplikatzeko.

Seigarrena.- Hileroko tasaren objektu diren elementuak erretiratu ondoren, interesatuek dagokion baja aitortzea aurkeztu behar izango dute derrigor eta indarrean sartuko da baja-eskaera aurkeztu ondorengo hurrengo hilabeteko lehen lanegunetik hasita; horrela ez badute egiten ere tasak berdin jarraituko dira aplikatzen, beraien gaineko erreklamazio edo bueltatzerik ez delarik izango.

Zazpigarrena.- Epigrafe honetako obrak geldituta badaude bi hilabete baino gehiagoko denbora batea, justifikatutako arrazoi barik, hirugarren hilabetetik aurrera tarifa honen aplikazioaren ondoriozko zenbatekoek % 100 errekargua izango dute; obrak amaitu ondoren, berriz, ustiapenek jarraitzen badute, tasak % 200 errekargua izango du.

Zortzigarrena.- Fatxadak konpontzeko lanen ondorioz instalatu behar diren hesi, aldamio, igotzeko plataforma eta montakargei dagozkien tarifak % 50 gutxituko dira, beti eta instalazioaldiak ez baditu hiru hilabete baino gehiago irauten.

Bederatzigarrena.- Epigrafe honetan araututako Tasen kalte barik, zoladurak berriro jartzeagatik edo berreraikitzeagatik praktikatu diren likidazioak jakinarazi egingo zaizkie interesdunei eta benetan ordaindu egin beharko dira jakinarazpena jaso zenetik hasitako 15 egunen barruan, egun horiek igaro baino lehen.

VI. BIDE PUBLIKOAN ZORUA, LURPEA ETA HEGALA OKUPATZEA.

LEHEN TARIFA.- Eroanbideak.

1. Behe tentsioko hiru hari eroale eta neutroaz gehienez osatutako argi-indarreko eroanbideko metro lineal edo zatiki bakoitzeko eta urteko, hona hemen ordaindu beharko dena:

		Lurpekoak	Airetikoak
		Euro	Euro
a)	10 mm ² sekzioa arte	0,04	0,06
b)	10-50 mm ² sekzio bitartean	0,06	0,10
c)	51-200 mm ² sekzio bitartean	0,07	0,19
d)	201-500 mm ² sekzio bitartean	0,19	0,28
e)	500 mm ² sekzioaz gora	0,41	0,49

Lurpeko instalazioak hari eroale anitz bere barruan sartzen dituen tutuaren bitartez ipintzen direnean, kontuak egiteko eta kitapenerako oinarri moduan hartuko dugu hari eroale guztien arteko sekzioen batuketa.

Airetiko eroanbideetan, kasuan kasuko, hiru hari eroale eta neutro bakoitzeko, haritza eroanbide berri moduan hartuko dugu eta eroanbide guztiek duten sekzioen arteko batuketa izango da kitapenaren oinarria.

2. Goi-tentsioko argindar eroanbide metro lineal edo zati bakoitzeko urteko, 0,49 €.

3. Berariaz tarifatu barik geratu diren kableak, metro lineal edo zati bakoitzeko urteko:

- Lurpekoak	0,07 €
- Airetikoak	0,17 €

BIGARREN TARIFA.- Tutuak, tutueria.

Jariakin edo solidoen eroanbiderako lurpeko tutueriako metro lineal edo zati bakoitzeko urteko:

		Euro
a)	50 mm. Diametro artekoak	0,06
b)	51-100 mm. Diametro bitartekoak	0,09
c)	101-200 mm. Diametro bitartekoak	0,21
d)	201-500 mm. Diametro bitartekoak	0,60
e)	500 mm. Diametrotik gorakoak	2,03

Udal jabariko bide publikoak dira mantentze-lana, eta kontserbazioa Laudioko Udalaren kargu eta esku, oso-osorik edo zati batean, dauden bide guztiak.

2. Ordenantza honetako Tarifan azaldu diren kuotak urteko dira, ezin dira gutxitu ez eta hainbanatu ere. Urte bakoitzeko lehen egunean sortu direla hartuko da kontuan, salbu eta tasa ordaindu beharra beranduago eta geroago sortua izan bada, izan ere, kasu horretan objektua gauzatzen eta egiten den hasten une beretik, hau da, obligazioa jaiotzen den unean bertan ulertuko baita sortua.

3. Tasak interes orokorreko, auzokide guztiei eragindako edo auzokoen zati nagusi garrantzitsu bati eragiten dion hornidura zerbitzuen ustiapen enpresen aldeko udalerriko bide publikoetako lurzorua, lur azpia edo gainetiko hegialak osatzen duten erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia denean, horien zenbatekoa, kasu guztietan eta inolako salbuespenik gabe, aipatu diren enpresa horien udalerraren termino barruan, kasuan kasuko, hileko, hiru hileko edo urtean lortzen duten fakturaziotiko diru sarrera gordinen % 1,50 izango da.

Ondore horietarako, zerbitzu horien ustiapen enpresen artean sartuko dira, baita zerbitzu horien banaketa eta merkaturatzeaz arduratzen diren enpresak ere.

Ez da sartuko kuantifikazio erregimen berezi honetan telefonia mugikorreko zerbitzuengatikoko Tasa.

Kuantifikazioko erregimen berezi hori ezarriko zaie hirugarren arau honetan aipatutako enpresei, hala hornidurak gauzatzen dituzten dagozkien sareen titularrak direnentz nola aipatu diren, eta sare horien titularrak ez izanik ere, badira sare berorien elkarrekiko lotura, sarbidea eta erabilera eskubideen titularrak.

Arau honetan eratorritakoaren ondoretarako, fakturaziotik eratorritako diru irabazi gordintzat hartuko dira, erakunde bakoitzari egotzi ahal zaizkionen artean, udalerrri bakoitzean prestatutako zerbitzuen kontra prestazio legez lortutakoak direnean.

Ondore horietarako, diru irabazi gordinen artean ezin izango dira sartu prestatutako zerbitzuak zergapetzen dituen zeharkako Zergen zenbatekoak, ez eta Tasa honen kuantifikazio erregimen berezia aplikatzen zaio erakundearen diru sarrera propioa ez den hirugarrenen kontura kobratuta kobratutako partidak ez eta zenbatekoak ere.

Hornidurak eskaintzeko beste inoren sareak erabiltzen dituzten enpresek euren fakturazioko diru sarrera gordinetatik kenkaria eduki ahal dute beste enpresa batzuei sare horietarako lotura edo sarbidea izategatikoko kontzeptuan ordaindutako zenbatekoen hainbatean. Sare horietako enpresa titullarrek konputatu beharko dituzte kontzeptu horretan jasotako diru zenbatekoak enpresaren fakturazioko diru sarrera gordinen artean.

Erregimen berezi honen ezarpenaren ondorioz sortutako zenbatekoa hainbatu egin ahal izango zaie arau honetako hornidura zerbitzuen erabiltzaileei.

Arau honetan araututa Tasak udal eskumeneko jarduerak egiteagatik edo zerbitzuak prestatzeagatik ezar daitezkeen beste Tasa batzuekin bateragarriak dira, eta horien subjektu pasiboak izango dira arau honetan aipatzen diren enpresak, Toki Ogasunak arautzen duen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 23.1.b) Artikuluan xedatutakoarekin bat, beraz, Tasa hau ordaintzetik kanpo geratuko da, udal bide publikoen lur zorua, lur azpia eta hegalean eraturako ustiapen eta aprobetxamendu berezia edo erabilera pribatuaren ondoriozko beste Tasa batzuk ordaindu beharra.

Ekonomia ekitaldi bakoitzeko lehenengo lau hilabeteen barruan enpresek aurkeztuko dute udalerrriaren barruan burututako horniduretatik lortutako irabazien aitorpena, aurreko urtean lortutako irabazi gordinen zehaztasunekin batera.

Aitorpen horrekin batera enpresa kontabilitatearen laburpena aurkeztu beharko da eta kasu bakoitzean Laudioko Udalak eskatuko duen dokumentazioa.

Laudioko Udalak behin behineko izaeraz zehaztuko edo kobratuko du Tasa hau; ordaindu beharreko zenbatekoa zuzendu ahal da behin behineko kobrantza gauzatu eta 4 urtera; baina epe hori amaitutakoan, behin betikotzat hartuko da.

4. Udalak ustiapen horiek egin ahal izateko lizentzia, kontzesioa edo baimena emateagatik edo, baimen ezean, ustiapen horiek benetan egiten direnetik sortuko da ordaindu beharra.

5. Ordaindu beharra izango dutenak udal lizentzia edo kontzesioen titularrak edo/eta pertsona edo erakundeak izango dira bide publikoko zorua, zoruazpia edo hegala benetan okupatzean edo okupazioaren aprobetxamendua euren aldekoa denean.

VII. BIDE PUBLIKOETARA IRTEN EDO FATXADA LERROA GAINDITZEN DUTEN MAILADI, OLANA, BALKOI, BEGIRATOKI ETA ANTZEKO INSTALAZIOAK

APLIKAZIO ARAUAK.-

1. Bide publikoaren hegalkiaren eta udal erabilpen publikoko ondasunen okupazioa hartzea da tasa honetako helburua hurrengo elementuez: balkoiak, sabaiak, etxe-sabaiak, begiratokiak eta bestelako eraikitako elementuak, bide publikoaren gainekoak edo etxe aurreko maratik irtenda daudenak; baita olanak, oihalak, berinetxeak, errotuluak, berinaterpeak eta bide gaineko antzeko eraikinak ere.

2. Udalak ustiapen horiek egin ahal izateko dagokion lizentzia, kontzesioa edo baimena emateagatik edo, baimen ezean, ustiapen horiek benetan egiten direnetik sortuko da ordaindu beharra.

3. Ordaindu beharra izango dutenak udal lizentzia edo kontzesioen titularrak edo/eta pertsona edo erakundeak izango dira bide publikoko zorua, zoruazpia edo hegala benetan okupatzean edo okupazioaren aprobetxamendua euren aldekoa denean.

4. Tasa udalak lizentzia ematen denean sortu eta zorpidetuko da, edo jarduera udalaren baimen barik hasi bada, ustiapena eta aprobetxamendua hasi denetik. Hurrengo eta jarraiangor urteetan kuota urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean sortu eta zorpidetuko da.

5. Urteko kuota ordaindu beharra dutenek baimendutako ustiapenen gutizko edo zatiko baja aitortpenak aurkeztu beharko dituzte horrelakorik gertatzen den unean; betebeharrak hau betetzen ez dutenek tasa ordaindu beharraren menpean lotuta jarraituko dute. Baja aitortpen horiek ondorioak eta indarra hartuko dute aurkeztu diren egun eta datarekiko hurrengo urtarrilaren 1etik aurrera.

LEHENENGO TARIFA.-

Zergaren oinarria izango da eraikina bertikalki proiektatzen den metro koadroak duen balioa, VBR produktu legez kalkulatuta, baimendutako proiektuen arabera eraiki ahal diren solairu zenbatekoarekin biderkatuz. Salbuespen bakarra izango dira ibilgailuak gordetzeko erabiltzen diren sestrapeko baxu eta ganbaretarako edo instalazioetarako dauden goiko solairuak.

Balio hori bide publikoaren gaineratik dagoen solairu bakoitzeko hegal m² guztiekin eta solairu zenbatekoaz biderkatuko da, eta lortutako emaitza ustiaketa gauzatzeko gai diren solairuen kopuruarekin zatituko da.

Hegalak ireki eta zabalak direnean, kuotan % 50 kenketa egingo da.

Balkoi edo terrazak begiraleku eta behatoki bihurtzen direnean modalitate bakoitzean kitatu diren zenbatekoen ezberdintasuna ordaindu beharko da.

BIGARREN TARIFA.-

Berinaterpeek, berinetxeek, eta gainerako hegal elementu finkoek, m² edo zatiki bakoitzeko 3,61 € ordainduko dute.

Olanak, pertsianak, gortinak eta hegalkinak, fincoak ez direnak, hau da, mugikorak edo zabalgarriak direnak, etxeko fatxada eta aurre aldea gaingitzen duten m² bakoitzeko edo luzera zatiki bakoitzeko 7,17 € ordainduko dute.

Kitatuko den gutxienezko zenbatekoa, kontzeptu biengatik, hauxe izango da: 10,11 €.

HIRUGARREN TARIFA.-

Udalak gauzatuko du proiektu bat merkataritza markaren irudia txertatuta duten salmenta puntuetan merkataritza errotuluak instalatzeko; errotuluok tasatik salbuetsita daude.

Hala ere, errotulu horietan publizitatea sartzen duten merkatariak 74,00 euro ordaindu beharko dute.

VIII. HERRI ERABILERAKO BASOETAN, USTIAPEN KOMUNEKO BASO EDO LURRETAN (HERRI BASOETAN EDO HERRI LURRETAN) EDO UDALAREN BERE JABETZAPEKOETAN LARRE, BARRUTI ETA BAZKALEKUEN APROBETXAMENDUA.

APLIKAZIO ARAUAK.-

1. Laudio Udalerriko barrutian kokatuta dauden larreen aprobetxamendua, erabilera publikoko herri-basoetan edo aprobetxamendu komuneko edo jabetzako lurretan Herriaren Onurako Basoetan eta Udal Jabariko Herri Basoetan larreen ustiapena arautzen duen Udal Erregelamenduaren terminoetan

2. Ordaindu beharra sortuko da honen eranskinean adierazita doan tarifa barruko ganaduarentzako larreen ustiapena hastearekin batera.

3. Larreen kuota urte bakoitzeko ordaintzen dira. Kobrantzarako oinarria izango da ganaduaren jabeak aurkeztutako aitortpena abere kopuru eta aberastasuneko estatistika eratzeko.

TARIFAK.-

Ganadua larreetan izateagatik kuota hauek erabaki dira:

		Euro
1.	Ardi buruko eta urteko:	1,33
2.	Txerri buruko eta urteko:	4,78
3.	Ahuntz buruko eta urteko:	4,78
4.	Behi buruko eta urteko:	10,33
5.	Behor / Zaldi buruko urteko:	10,33

Kuota horiek ez dira aldatuko harik eta Arabako Foru Aldundiak beste handiagoren batzuk erabakitzen ez duen bitartean; hala bada, Aldundiak tarifa handiak erabakiz gero, udalerrri honetan, horiek izango dira aplikatuko direnak.

Tasa urtero ordaindu behar da Laudio Udalerriko barrutian kokatuta dauden larreen eta erreturen aprobetxamendu erabilera publikoko herri-basoetan edo aprobetxamendu komuneko edo jabetzako lurretan. Erreturak erein eta hazteko laboratzen diren lurrak dira. Kuota Arabako Foru

Aldundiak urtera adieraziko duena izango da, indarreko urtean baso ustiapen guztiak onartzeko ebatziko duen Foru Aginduaren bitartez.

Dena dela, ganaduak edo artzainak errespetatu behako ditu udalaren jabetzapeko basoetan finkatuta dauden pasabide baimenak eta debekuak.

IX. AZOKA PLAZAKO SALTOKIEN ERABILPENA

1.- SALTOKI FINKOAK (HORNIDURA PLAZAKO AZOKA):

- Saltoki bakunak eta soilak: 53,59 € / hileko.
- Saltoki bikoitzak: 107,18 € / hileko.

2.- OSTEGUNETAKO KALEKO SALMENTAKO OHIKO SALPOSTUAK:

Kokapena	Metro²	euro / urteko
a) Herriko Plaza Arkupeak	3m ²	100,00
b) Herriko Plaza:	16 m ²	500,00
	24 m ²	750,00
	45 m ²	1.300,00
c) Aldaikoerreka Plaza	16 m ²	500,00
	24 m ²	750,00
	32 m ²	990,00
	40 m ²	1.250,00

3.- ALDI BATEKO EDO BEHIN BEHINEKO SALTOKIAK:

- Prezioa enkante-subasta zabal eta publikoan finkatuko da.

X. UDAL JABARIKO HERRI-BIDEEN ERABILERA BEREZIA.

Udalaren jabariko bideak erabiltzeagatik ordaindu beharko den tasa, egin beharreko bidearen nondik norainoko luzeran oinarria hartuta kalkulatu da; hona hemen eskala:

BIDE-LUZERA	TASA/EURO/ ESTEREO	TASA/ EURO/TM.
Km 1 arte.	0,20	0,28
1-2 Km artean.	0,27	0,39
2 Km baino gehiago	0,31	0,45

Ezarri da 30,00 euroko gutxienezko tarifa.

XI. MERKATARITZAKO GAIEN EDO BIDAIARIEN GARRAIOKO IBILGAILUEN APARKALEKUA ERABILTZEA, ARANTZAR UDAL APARKALEKUAN:

APLIKAZIO ETA EZARPEN ARAUAK.-

1. Ordaindu beharra sortzen da merkataritzako gaien edo bidaiarien garraioko ibilgailuak aparkatzeko udal lizentzia edo baimena ematearekin batera, edo dagokion baimenik gabe egin bada Arantzar Udal Aparkalekuan, aparkatzeko egintza hasi den une beretik.

2. Tasaren subjektu pasiboak dira Arantzar Udal Aparkalekua erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

3. Tasaren sortzapena eta horren ondoriozko ordaindu beharra gertatzen da Arantzar Udal Aparkalekuaren erabilera egite hutsagatik eta bakarragatik.

4. Aparkalekuko erabilera arauak jasota daude Merkataritzako gaien edo Bidaiarien garraioko Ibilgailuen Udal Aparkalekuko Barruko Arauen Erregelamenduan.

5. Ohiko erabiltzaileak ez direnen kasuan izan ezik, tasaren kobrantza hileroko errezibo bidez gauzatuko da. Hori kobrantzarako jarriko da helbideratutako banku kontuetan, hilabete bakoitzeko lehen 10 egunetan zehar. Hala egingo du Udalak berak edo Aparkamenduaren kudeaketa bere esku gomenda diezaiokeen beste hirugarren batek.

TARIFAK.-

Partzela handiak	68,36	Euro/hileko
Partzela txikiak	54,44	Euro/hileko
Pasadizokoak	6,93	Euro/egun

XII. AUTO-TAXIAREN GARRAIO ZERBITZUA

APLIKAZIO ETA EZARPEN ARAUAK.-

1. Zerga-egitatea dira ondorengo kontzeptu hauek:

- a) Lizentziak onartzea, ematea eta eskaintzea.
- b) Legez hala badagokio, Lizentzia eskualdatzeko baimena ematea, indarrean dauden legeekin bat.

2. Tasa sortzapetu eta zerga ordaindu beharra sortzen da Laudio Herriko Etxeak dagokion lizentzia eman eta eskaintzen edo bere eskualdatzea baimentzen edo ibilgailuaren ordezte baimentzen duen egunean bertan.

3. Ordaindu beharra du:

- a) Lizentzia ematea, luzatzea eta erabilera eta ustiapenagatik, eman zaion pertsona titularrak.
- b) Lizentzia bati atxikitako ibilgailua ordezteagatik, bere titularrak.
- c) Lizentzia eskualdatzen den kasuetan, aldatzen duenak, salbu eta guraso eta seme-alaben edo ezkontideen arteko eskualdatze kasuetan izan ezik.

4. Baimendutako eskualdaketek transmisioko tarifa normala ordainduko dute, salbu eta titularraren heriotza dela kausa sortutakoak, onuraduna zendutakoaren jaraunslea denean eta, erretiro kasuan, hartzaile berria oinordeko bat denean, bada, kasu horietan, transmisioa ez da zergapeko eta lotetsita egongo.

TARIFAK.-

	Euro
Lizentziak onartzea, ematea eta eskaintzea.	3.000,00
Ibilgailuen erabilera eta ustiapena Ibilgailuak ordezte	30,00

XIII. AZKEN XEDAPENA

Udalaren Herri Jabariko Ondasunen Beraziazko Erabilera edo Ustiapen eta Baliatze Bereziagatik Tasak arautzen dituen honako Ordenantza Fiskala eta bere Eranskina, orain duen erredakzioaz, behin-behineko izaeraz onartu zen 2011ko azaroaren 2an, eta behin betiko izaeraz, urte bereko abenduaren 17an. Indarrean jarriko da 2012ko urtarrilaren 1ean eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetzea onartuko den arte.

ALKATEAK

IDAZKARIAK

Jon Iñaki Urkixo Orueta

M^a Aranzazu Lili Salazar